

Ez dago argi kartzinomatosi peritonealean hesteetako sasibuxadurek sortutako sintomak esteroideekin hobetu daitezkeen ala ez

Ez dago argi kartzinomatosi peritonealean hesteetako sasibuxadurek sortutako sintomak esteroideekin hobetu daitezkeen ala ez, gainera hilabeteko hilkortasunean ez dute eraginik

Jatorrizko erreferentzia

Feuer DJ, Broadley KE. Corticosteroids for the resolution of malignant bowel obstruction in advanced gynaecological and gastrointestinal cancer. Cochrane Database Syst Rev. 2000;(2):CD001219. Review.

Kritikoki aztertutako testuaren egilea

Cristina Agirre Rodríguez
Barne medikuntza-paziente kronikoa
Donostiako Unibertsitate Ospitalea. Donostialdea ESla
cristina.aguirrerodriguez@osakidetza.eus

Galderak (PICO)

- * Pazientea: digestio-aparatuko neoplasia eta kartzinomatosi peritoneala duen pazientea, min eta hesteetako sasi-buxadurarekin erlazionatutako sintomekin.
- * Esku-hartzea: kortikoideak (dexametasona).
- * Konparazioa: ohiko tratamendua.
- * Emaizta: minaren hobekuntza. Hesteetako sasi-buxaduraren sintoma klinikoak murriztea. Medikazioaren ondorioak.

Bilaketa-estrategia

*Erabilitako hitzak: Intestinal Obstruction, Steroids, Adrenal Cortex Hormones, Gastrointestinal Neoplasms, Genital Neoplasms, Female Ovarian Neoplasms, Peritoneal Carcinomatosis, Malignant Bowel Obstruction.

*Informazio-iturriak: UpToDate, TripDataBase, EE+, Cochrane Library, Dynamed, EMBASE.

Ikerketa

Saiakuntza klinikoen errebisio sistematikoa da. Bilaketa: saiakuntza klinikoen erregistroa, literatura grisa, Cochrane Library, Medline, EmBase, erreferentzien jarraipena, kongresuak, adituak.

Ez dago hizkuntzaren murriztapenik.

Aurkitutako artikulua: 3
Barne hartutako artikuluen kopurua: 3
Pazienteak guztira: 97

Balorazio kritikoa

Bi ikertzailek hautatutako artikulua. Bi ikertzaileek datuak atera dituzte. Argitaratze-isuririk ez dago. Heterogeneotasunaren balorazioa badago. Efektu aleatorioaren ereduarekin emaitzak konbinatzen dituzte. Ez dago metarregresiorik. Sentsibilitate-analisia ondo eginga dago. Azpitaldeetako analisia ez da egiten. Kalitate-irizpide argiak.

Frogak

Eraitza	OR	NNT
Hesteetako buxadura konpontzea	0,51 (0,22 - 1,19)	6 (-23 - 3)

Oharrak

- * Saiakuntzen kopurua txikia denez, ez da egokia heterogeneotasun-azterketa metarregresioarekin egitea eta azpitaldeen azterketa egitea.
- * Esteroideek ez dute eraginik hilabete baten barruan agertzen den hilkortasunean.
- * Ez da hobekuntzarik agertu, ez sintometan ezta bizitza-kalitatean ere.
- * Erabiltzen diren esteroideak dexametasona (16 mg bb 5 egunetan) eta metilprednisolona (250 mg bb) dira.